Barrundiako Udal Aldizkaria

7. alea, 2013ko abendua



ASAMBLEA PRESUPUESTOS 2014.

El día 17 de enero se realizará una asamblea informativa abierta sobre los presupuesto municipales.

3.orr.

PROGRAMA BALNEARIOS IMSERSO.

Un año más se ha abierto el plazo de inscripción del Programa de Termalismo Social (balnearios).

5.orr.

HAUTESKUNDEEN EMAITZAK.

Administrazio Batzordeetarako hauteskunde eguneko emaitzak.

7.orr.

Aurkibidea
Indice

Editoriala 2

Udala 3

Administrazio Batzordeak 7

Gizartea 8

Ba al zenekien 14

Bitxikeriak 16

Mendi ibilbidea 17

Liburutegi txokoa 19

Umeen txokoa 20

Editoriala

2013ari agur esateko unea iritsi den honetan, Barrundiatik esperantzazko ongietorri bero bat egin nahi diogu 2014ari. Goiz batean esnatu eta krisia bukatu dela esango digute, lasaitu edarra hartuko dugu mozolo aurpegiaz jarraitzen dugun bitartean.

Bai! Mozolo aurpegirekin entzungo ditugu haien hitzak. Horren konfiantza gutxi erakutsi diguten agintariek, gure ekonomia eta hiritar gisa ditugun eskubideak gogor defendatu dituztela esango digute behin eta berriz, horregatik bukatu dela krisia.

Hiritar bezala ez dakigu zehatz mehatz nondik datorren krisi hau baina oso ondo dakigu nora garamatzan: duela 40 urte genituen eskubide eta soldatetara, gure gurasoek eta zenbaitetan guk geuk borrokatutako eskubideen galtzera.

Gu guztiok menpeko gaituzten egunean, gure lan eskubideak nomina eskas batean sartzen direnean, gazteriak lau xoxengatik lan egin beharko duenean, osasun zerbitzuak eskubide izateari utzi eta luxu bilakatzen diren egunean, banketxeek etxe gabeko persona adina etxe huts dituztenean, orduan, pozez zoratzen esango digute: bizi lasai, krisia joan da eta!

Hortaz, urte berriari jakituria eta bihurrikeria eskatuko nizkioke. Jakituria, gure sendiek 70. hamarkadan zuten bizimodua barneratzeko eta bihurrikeria, gobernuek gure ongizatearen izenean gure kontra burutzen dituzten ekintza guztiei herri gisa erantzuteko gaitasuna izateko.

Ea gau ilun- luze eta egun labur-hotzak dituzten hilabete hauen ondoren, udaberria esperantzaz beteriko egun epelez jantzia datorren.

Editorial

Nos despedimos del año 2013 y desde Barrundia queremos saludar esperanzado/as al 2014. En este nuevo año nos despertaremos un día y nos anunciarán que la crisis ha terminado y respiraremos aliviados con cara de boba/os.

¡Sí!, Pondremos cara de bobo/as al oír a l/os gobernantes que tanto hemos desconfiado contarnos como han defendido con uñas y dientes nuestra economía y nuestros derechos como ciudadano/as.

Ciudadana/os que no sabemos muy bien de donde ha salido esta crisis pero que sabemos muy bien a donde nos lleva: a volver a los derechos y a los salarios que teníamos hace 40 años. Derechos perdidos que nuestros padres y madres y en muchos casos nosotras mismas peleamos por conseguir.

Un buen día cuando nos tengan a todo/as sumisa/os y nuestros derechos laborales entren en una ridícula nómina, cuando a la juventud le dé lo mismo por cuanto trabajar, cuando la sanidad sea un privilegio y no un derecho y cuando los bancos tengan tantas viviendas vacías como personas sin hogar, nos dirán con alegría engañosa que podemos vivir tranquilo/as que la crisis se ha ido.

Por lo tanto, al nuevo año le pediría sabiduría y rebeldía. Sabiduría para aprender a vivir como nuestras familias vivían en los años 70 y rebeldía para que como pueblo sepamos dar una respuesta a todas las acciones que los gobiernos llevan a cabo en nuestro nombre y por nuestro bienestar pero en nuestra contra.

Estos meses de noches largas y oscuras, de días cortos y fríos esperemos que den paso a los días cálidos y esperanzadores de la primavera.

Barrundiako Udal Aldizkaria

LG zk. VI-211/2012

7. zenbakia. 2013ko abendua

Argitaratzailea:
Barrundiako Udal komunikazio taldea

Diseinatzailea:
Aldizkariko lan taldea

Inprimitzailea:
San Martín impresión digital

Ale honetako kolaboratzaileak - Colaboraciones

Udal taldea, Barrundiako Udal Komunikazio Taldea, Kultur Teknikaria, Liburutegiko teknikaria, SCR Borraska, Jaime Ortiz de Urbina, Eva López de Arroyabe, Ester Bernedo, Jabi Sesma, Eneritz Ibarra, Eva González de Matauco, Euskara teknikaria, Koldo Borobia, Lorca Torres, Mila López de Muniain, Bea Beobide, Naia Zubia.

ASAMBLEA PARA PRESENTAR LOS PRESUPUESTOS DE 2014
2014RAKO AURREKONTUAK AURKEZTEKO BATZARRA

Una vez aprobadas las ordenanzas fiscales, como todos los años el Ayuntamiento de Barrundia aprobará a principios de Febrero los presupuestos para el próximo ejercicio.

Previamente, con el objetivo de dar a conocer las cuentas públicas y recoger la opinión de los vecinos de Barrundia, se realizará una asamblea informativa abierta a todas las personas interesadas. En dicha asamblea se presentarán las previsiones de ingresos y gastos corrientes, además de las inversiones que se preveen para el ejercicio 2014. Los presupuestos son la principal herramienta con la que cuenta el Ayuntamiento para definir en qué va a gastar los recursos económicos que tiene, por lo tanto es muy importante, además de enriquezedor, que los presupuestos sean compartidos con la ciudadanía, más allá de las comisiones y plenos ordinarios que se realizan para aprobarlos.

La cita será el próximo **17 de Enero (viernes) a las 18:30h.** en **el Ayuntamiento de Barrundia.** Desde el Ayuntamiento os animamos a participar y a aportar en dicha asamblea. Muchas gracias de antemano!

Ordenantza fiskalak onartu ondoren, urtero bezala Barrundiako Udalak aurrekontuak onartuko ditu Otsaila hasieran.

Aurretik, interesa duen pertsona ororentzat batzar ireki bat egingo da kontu publikoak ezagutzera emateko eta Barrundiako bizilagunen iritziak jasotzeko. Aipatutako batzarrean ohiko diru-sarrera eta gastuak aurkeztuko dira, baita 2014rako aurreikusten diren inbertsioak ere. Aurrekontuak Udalak duen oinarrizko tresna bat da, dauzkan errekurtso ekonomikoak nora bideratu behar dituen zehazteko. Beraz, oso garrantzitsua eta aberasgarria da aurrekontuak herritarrekin konpartitzea, onartuak izateko erabiltzen diren ohiko bideetatik haratago (batzordeak eta osoko bilkurak).

Batzarra datorren **Urtarrilaren 17an (ostirala) burutuko da arratsaldeko 18:30tan** Barrundiako Udaletxean. Udaletik partehartzera eta zuen aletxoa jartzera gonbidatzen zaituztegu. Eskerrik asko aldez aurretik!

GENERO BORTIZKERIA HITZARMENA

El pasado 30 de diciembre, en Pleno Ordinario, el Ayuntamiento de Barrundia se sumó al protocolo elaborado en la Cuadrilla de la Llanada sobre la coordinación y actuación en temas de violencia de género.

Mediante el protocolo se ha pretendido aunar intervenciones consensuadas de los diferentes profesionales implicados a lo largo de todo el proceso y de los Ayuntamientos de la cuadrilla, que incluye acciones dirigidas a la prevención, detección, intervención y acompañamiento de las mujeres víctimas de estas situaciones.

Este Protocolo tiene como objetivo convertirse en una herramienta útil en la que se aglutinen acciones cercanas y respuestas concretas dentro de la realidad de la comarca, por ello es un documento consensuado y contrastado con las diferentes partes que intervienen en todo el proceso.

Abenduak 30-eko Ohiko Bilkuran Barrundiako Udala Lautadako Eskualdean onartutako genero-indarkeriaren inguruko koordinazio eta jokabide protokolora atxekitu zen. Honen bidez genero indarkeriaren inguruan lanean ari diren hainbat profesionalek eta eskualdeko udalek adostutako esku-hartzeak sustatu dira; prebentzio-ekintzak, detekzio-ekintzak, esku-hartze ekintzak eta egoera hauen biktima diren emakumeei zuzendutako laguntza-ekintzak.

Protokolo honen helburu nagusia, eskualdeko errealitatea kontuan hartuta, egoera hauen aurrean erantzun zehatzak emateko tresna baliagarria izatea da. Hori dela eta, arazo honen inguruan lan egiten duten alde guztien adostasuna lortzea izan da dokumentu honen xede garrantzitsu bat.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

EUSKARA PLAN ESTRATEGIKOA

2013ko Abenduko osoko bilkuran Barrundiako EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2013-2017 eta KUDEAKETA PLANA 2013-2014 aprobatu dira

Txostenak 12 arlo ezberdinak osatzen ditu: Lanpostuen Hizkuntza-eskakizunak, ahozko komunikazioa, idatzizko komunikazioa, itzulpenak, tresna eta aplikazio informatikoak, Internet eta Intranet sareak, argitalpenak, hizkuntza-paisaia (errotulazioa..), iragarkiak, publizitatea eta kanpainak, diru-laguntzak, eta kontratazio administratiboak.

1. arloan langile bakoitzarekin euskalduntze-plan pertsonalizatua adosteko aukera: ordu-kreditua, ikastaro-mota... Udalean, teorian, guztira 2 lanpostutan bete daiteke lana % 100ean euskaraz, eta beste bi lanpostuetako kideek ere euskaraz lan egiten hasteko oinarrizko gaitasuna dute.

Ahozko komunikazioan hauek lirateke euskaraz bermatu beharreko arloak: telefonoan zein leihatilan herritarrekin zein beste erakundeekin lehenengo hitza euskaraz, herritarren artean administrazioarekiko harremanak euskaraz izan daitezen kanpainak burutzea, erakundeko ahozko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu…

Idatzizko komunikazioan proposatzen da erakundearen idatzizko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze-lana areagotuaz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.

Udala igorlea denean, herritarrekiko idatzizko komunikazio orokorra elebidunez izaten da gehienetan; bandoak, txartelak, argitalpenak, jakinarazpenak, oharrak..

Udala jasotzailea denean, euskaraz egiten diren eskaerei euskaraz erantzuten zaie. Eskaerak euskaraz egiteko beharrezko dokumentazio guztia elebidunez dago; eskaerak, instantziak, obra baimenak, lagapenak….

Arazoa dokumentu teknikoekin sortzen da, esaterako hirigintzan. Arazo hau oraingoz zaila dirudi konpontzea.

Hauek lirateke hiru arlo garrantsitzuenak, gainontzekoak ahaztu gabe eta aurrerapausuak emanez.

En el pleno de Diciembre se ha aprobado el plan estratégico de uso del euskera 2013-2017 y el plan de gestión 2013-2014. El plan cubre 12 campos diferentes: Incremento de las acreditaciones de perfiles lingüísticos del personal del Ayuntamiento; Comunicaciones orales; Comunicaciones escritas; Traducciones; Herramientas y aplicaciones informáticas; Redes Internet e Intranet; Publicaciones; Paisaje lingüístico (rotulación y avisos puntuales); Anuncios, publicidad y campañas; Subvenciones; Contratación administrativa.

OHARRA: 2014KO EGUTEGIA - NOTA: CALENDARIO

En algún ejemplar del calendario de 2014 falta la hoja correspondiente al mes de Abril. Por nuestra parte pedir disculpas y a quien esté interesado y en la medida en que nos lleguen los sobrantes, se lo podemos sustituir.

2014ko egutegiaren ale batzuetan akats bat egon da, apirilari dagokion orria falta baita. Barkamenak eskatu nahi ditugu eta nahi izanez gero eta ahal den neurrian ordezkatuko dira soberan geratu direnekin.

IMPUESTOS, TASAS Y PRECIOS PÚBLICOS PARA EL 2014

ZERGAK, TASAK ETA ORDAINSARI PUBLIKOAK 2014. URTERAKO

El día 12 de noviembre el Gobierno Municipal de Barrundia, aprobó en pleno ordinario las tasas, impuestos y precios públicos para el año 2014.
Barrundiako udalbatzak, azaroaren 12ko ohiko bilkuran, 2014. urterako zergak, tasak eta gainerako ordainsariak onartu zituen.

VEHICULOS	IBILGAILUAK
• Mantenimiento de las tasas de.2013.	• 2013ko tasak mantentzea.
Impuesto sobre Bienes Inmuebles (IBI)	**Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ)**
• Subida del tipo del 0.17 al 0.19. • Se bonificará a todas las unidades familiares que tengan ingresos inferiores a 21.000€ anuales según tablas aprobadas el ejercicio pasado. • Se mantendrá la bonificación a empresas constructoras e inmobiliarias en el 50%.	• Tipoa 0,17tik 0,19ra igotzea. • Urteko 21.000 euro baino gutxiagoko dirusarrera duten familiek hobariak izango dituzte, pasa den urtean aprobatu zen taulen arabera. • Eraikuntza-enpresen eta inmobiliarien kasuan hobariak % 50ean mantenduko da.
Impuesto sobre construcciones (ICIO)	**Eraikuntzaren gaineko Zerga (EZ):**
• Mantener el actual 3,8%.	• Aurtengo %3,8 mantentzea.
Impuesto sobre Actividades Económicas (IAE)	**Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ):**
• Subir del actual 1,8 al 2,2. • Además se bonificará el 20% a las empresas madereras.	• Aurtengo 1,8tik 2,2ra igotzea. • Egurrari loturiko enpresek %20ko hobaria izango dute.
TASA DE BASURAS	**ZABORRAREN GAINEKO TASA**
• Subida del IPC. (1´9%) • Bonificación del 20% a quien composte.	• % 1´9ko igoera (KPI) aplikatuko da aurten. • %20ko hobaria konpostatzen duenari.
PRECIOS PÚBLICOS DE ACTIVIDADES CULTURALES Y DEPORTIVAS	KULTURA ETA KIROL JARDUERETARAKO ORDAINSARI PUBLIKOAK:
• Mantener los precios actuales. • Tendrán una bonificación del 50% jóvenes y parados	• Aurtengo prezioak mantentzea. • Langabetu eta gazteek %50eko hobaria izango dute.

APERTURA PLAZO DE INSCRIPCIÓN PROGRAMA TERMALISMO

Un año más se ha abierto el plazo de inscricción del Programa de Termalismo Social (balnearios) del Imserso para pensionistas del sistema de la Seguridad Social.
Plazos para la presentación de las solicitudes:
- **Para los turnos de los meses de febrero hasta agosto ambos inclusive:**
Con prioridad en la adjudicación: **Hasta el día 16 de enero de 2014**. Para su inclusión en la Lista de Espera: El plazo continúa abierto hasta el 16 de mayo de 2013.
- **Para los turnos de los meses de septiembre a diciembre ambos inclusive:**
Con prioridad en la adjudicación: Hasta el día 16 de mayo de 2014. Para su inclusión en la Lista de Espera: El plazo continúa abierto hasta el 30 de octubre de 2013.
Para obtener más infomación y recoger las solicitudes se puede hacer en el Ayuntamiento de Barrundia y en la Cuadrilla de Salvatierra.

La basura; asignatura pendiente en Barrundia

Hace poco se daban los resultados del Estudio de la Recogida de RSU de los municipios de la Cuadrilla de Agurain, que no dejan a nuestro municipio en muy buen lugar.

Actualmente la Cuadrilla se encarga de recoger los residuos de los contenedores de basura en los municipios de Barrundia, Alegria-Dulantzi, Elburgo, Iruraiz-Gauna, San Millan, Zalduondo y Asparrena (quedando fuera Agurain). Los camiones de Escor cargan los residuos procedentes de los contenedores de "basura", los de limpieza urbana y los de otros lugares concretos (estaciones de servicio, polígonos industriales y establecimientos o albergues aislados). Estos residuos se llevan al vertedero de Gardelegi donde se vierten. Hasta ahora no se tenían datos para saber si la factura se ajustaba correctamente al servicio prestado (gastos de personal, gasoil, amortización de los contenedores y tasas que hay que pagar al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz por el vertido), ni cuál era el gasto real atribuible a cada municipio. Y es que los vecinos de la cuadrilla pagan una misma cuantía independientemente de los gastos del camión entre su municipio y el vertedero o de la cantidad de basura que produzcan.

El estudio nos debe generar unas cuantas reflexiones a los barrundiarras:

Tras San Millan, somos el municipio que genera más basura por habitante, (400 kg por habitante y año). Hay que tener en cuenta que San Millan cuenta con un polígono industrial, y de ahí procede este "exceso" de basura.

En 2012 se pagaron 30,53 euros por habitante y año, y según el estudio 25,40 euros es el gasto suma de personal, gasoil, amortización de los contenedores y tasas que hay que pagar al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Está diferencia estriba en que los gastos de personal en Escor son más altos que en otras empresas que se tomaron como referencia para el estudio.

Teniendo en cuenta la basura generada en Barrundia y los viajes necesarios para recogerla a través de los 13 núcleos dispersos, el coste real en Barrundia es superior a lo que pagamos en cerca de un 15%. De alguna manera, los otros ayuntamientos nos han "subvencionado" una parte del gasto.

En 2014 las tasas del vertedero subirán una barbaridad; de los 44,47 €/Tn a 66 €/Tn. con lo que el recibo de la basura subiría entorno al 15% o más.

¿Cómo podemos ahorrar? El estudio también lo apunta:

En la basura el 51% vienen a ser restos orgánicos. Con los datos de 2012, si hubiéramos reducido la materia orgánica de la bolsa de basura en un 80%, el ahorro habría sido de 6.502 € para Barrundia. Ese cálculo para 2014 conllevaría un ahorro mucho mayor.

En Barrundia la basura se recoge uno o dos días a la semana según el pueblo. Colocando 3 contenedores más en Ozaeta, 2 más en Heredia y uno más en Hermua y Marieta se podría recoger una vez a la semana y ahorrar bastante dinero. Los contenedores pueden proceder de Etxebarri-Urtupiña y Mendixur donde con 3 y 2 menos respectivamente se podría recoger de igual forma la basura.

En cualquier caso, tanto por el volumen de basura que producimos, como por lo que ello repercute económicamente a los otros municipios de manera injusta, como por lo que van a subir las tasas de vertido, actuar para dar la vuelta a estos datos parece una obligación.

Lautadako Kuadrilla osatzen duten udalerrien zabor bilketa aztertzen duen informearen emaitzen berri izan dugu orain dela gutxi. Emaitza horietan Barrundiako udalerriaren datuak nahiko txarrak dira. Zer dela eta? San Millanen atzetik biztanleko zabor gehien sortzen dugun udalerria gara (400kg biztanleko/urteko). 2014-ean zabortegiko tasak era nabarmenean igoko dira, modu horretan ordaindu beharrekoa %15-ean igoko zaigu.

Nola aurreztu? Informearen arabera zaborren %51-a hondakin organikoak dira, hauen %80-a konpostatuko bagenitu Barrundiako udalerriak 6.502 € aurreztuko lituzkete. Barrundian zaborra astean 1-2 egunetan jasotzen da, kontenedore kopurua igota hainbat herritan, astean behin jasotzea nahikoa litzateke.

RESULTADOS DE LAS ELECCIONES A CONCEJOS

A continuación se representan los resultados de las votaciones para las Juntas Administrativas de Barrundia. Hay que señalar que los cargos de varias juntas sufrirán modificaciones por renuncias de los electos.

Administrazio Batzordeetarako hauteskundeen emaitzak dauzkazu jarraian. Aipatu beharra dago kargu-hartzeetan aldaketak emango direla uko-egiteak direla eta.



CÓMO AFECTA LA REFORMA LOCAL A LOS CONCEJOS

El 19 de Diciembre de 2013 el Gobierno Rajoy aprobó definitivamente la Ley de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local. Mediante esta Ley se centraliza la actividad institucional y se aleja de las entidades más cercanas a la ciudadanía. Aunque estas modificaciones afectan en gran manera a los Ayuntamientos, en esta ocasión resumimos las consecuencias que supone para los Concejos:

- Los 370 Concejos de Araba (36 de ellos en Trebiñu) podrían perder la condición de Entidades Locales si así lo decidiera la Diputación.
- No se permite la constitución de nuevos concejos.
- Si no presentan cuentas (tesorería) tal y cómo se les exija en el plazo de 1 año, perderán la personalidad jurídica y la condición de Entidad Local.
- Los concejos que dependan de un Ayuntamiento que pasa por dificultades económicas perderán su personalidad jurídica y su condición de Entidad Local.

Peligran las competencias propias de los concejos:

- La construcción, ampliación, conservación y reparación de las instalaciones de uso o servicio público de titularidad de la Entidad.
- La policía de caminos rurales, montes, fuentes y de los demás bienes de uso y de servicio público propios del Concejo.
- La administración, conservación y regulación de su patrimonio, incluido el forestal.
- La programación, proyección y ejecución de obras y la prestación de servicios.

ARTO LABERINTOA OTAZAN

Udazkenean Otazako arto soroek arteari eta jolasari leku egin diote eta bertan, artoartean laberintoan, gozatzeko aukera izan dugu. Beldur puntutxo bat, misterio pixkat, galduta egotearen sentsazioa, artobizarrekin mozorrotu eta barre mordoa egitekoa, poliki, korrika, urduri, saltoka ibili gara eta denetariko sentimenduak piztu zaizkigu. Sentimenduokin bakoitzak gure barnean dugun harra bilatzeko aukera izan dugu sagar itxurako laberintoan eta bertan zen har erraldoi batekin ezkutaketan jolastekoa ere! Lehen izotzarekin batera agur esan genion, pena apur batez baina datorren urtean beste bat sortzeko gogoz, bertan ikusiko gara! Gonbidatuta zaude ta! Baaaai, baita zu ere, adinak ez du inporta eta!

BIZI SAGARDOA

Durante este año 2013, el ayuntamiento de Barrundia, junto con un amplio abanico de agentes institucionales y asociativos, ha respaldado la apuesta que la Asociación BIZI SAGARDOA ha puesto en marcha para fomentar la cultura y el turismo de la sidra de y en Euskal Herria. Dada la relación que nuestro municipio tiene con este producto natural nos hemos querido unir junto con otros agentes para dar apoyo a esta iniciativa que pretende desarrollar proyectos y reunir compañeros de viaje, con el claro propósito de impulsar la cultura y el turismo alrededor de la sidra de Euskal Herria.

Euskal Herriko sagardoaren kultura eta haren inguruko turismoa sustatzeko asmoz sortu da Bizi Sagardoa elkartea. Sagardogileen elkarteek, udalek, fundazioek, museoek, enpresek eta hainbat eragilek egindako elkarlanaren emaitza da.

Pin Pan Pun! Maturana txapeldun!

Maturanako Jaiak San Martín egunean ospatzen dira eta han izan ginen aurten ere bizilagun guztiak. Eguraldiak ez zuen gurekin batera festa ospatu, San Martin ez zuen bere "veranilloa" deritzona ekarri eta egun guztietan euria eta hotza izan genuen.

Ostiraletik hasita herriko bizilagunak garbiketa eta prestaketa lanetan aritu ginen. Gauean afaria egin genuen auzolanean izan ginenok, indarrak hartu eta karaokea prest zegoen ausartak eta ez hain ausartak asetzeko.

Iñaki, gure "DJ Makalak" partikularrak, gainditzeko proba gogorra jarri zigun aurten. Poliki hasi ginen, haurrentzako abesti errazak abestuz pinto-pinto, maite zaitut, eta holakoak, umeek primeran egin zuten, gero helduen txanda ... Aurreko 5 hamarkadetatik bidai luzea egin ondoren, gure hizkuntzetarako gaitazuna probatzen hasi zen Iñaki.

Ingelesez adibidez "We are the champions" abestiarekin, baina, hau desastrea! uste dut hurrengo urterako utzi beharko dugula, aurten ez da "Txampiñioik" egon gure herrian, ez behintzat ingelera mailan, zer esanik frantsesez, horretaz ez dugu ezer esango, badaezpada, mon Dieu!

Larunbatean festaren egun nagusia izaten da. Kanpoko jendea gonbidatzen dugu. Umeentzat gazteluak egon ziren, eguerdiko meza eta gero bermuta. Bazkarian 80 bat lagun egon ginen txokoan, eta ondoren mus txapelketa eta haurrentzako Gynkana. Mus Txapelketan aurtengo irabazleak Gebarako Juanito eta Ozaetako Teodoro izan ziren, sariak beraz, ez ziren aurten herrian gelditu.

Ginkana izan zen aurtengo nobedadea, Udalaren laguntzaz euskararen eguna ospatzeko prestatutako ekitaldia izan zen, 15 ume baino gehiago parte hartu zuten, eta guztion artean herriko "altxorra" bilatu behar zuten, merienda goxoa eta karaokea Ismaren bordean.

Mila esker gurekin izan zineten guztioi, hurrengo urtean espero zaituztegu berriro!

LARREAKO JAIAK

Como todos los años, en Larrea se celebran las fiestas patronales en noviembre, en honor a San Millán. Este año, como es tradición, el fin de semana cercano al 12 de noviembre, se volvieron a celebrar las fiestas añadiendo además actividades en favor del uso del Euskera. Un pueblo, comprometido con el Euskera, pero donde falta aún ponerlo en valor, a pesar de que ya en el año 2009 vivimos un episodio de compromiso con nuestra lengua al colocar una placa en honor a Joan Pérez de Lazarraga.

Aurtengo jaietako aipagarriena Larrean bizi den jende askoren partehartzea izan da, eurei esker adin guztietarako ekintzak antolatu ahal izan ditugu. Magia, haurrentzako ekintzak, dantzagarriak, mus txapelketa, Dja, bertso poteoa eta dantza plaza izan ziren nagusienak. Ekintzek harrera oso ezberdina izan zuten asteburu gris, euritsu eta ilun hartan, baina guzti honen gainetik argi gelditu zen Larreako herriak euskararekin duen konpromezua, ondo pasatzeko gogoa eta bertakoen herritar sentimendua.

Hitz hauen bitartez gure esker ona adierazi nahi diegu modu batean edo bestean parte hartu duten guztiei eta herriaren egunerokoan parte hartzen jarraitzeko deia zabaldu.

Eskerrik asko guztiei.

EH TXO! JAUZI EGIN ETA EUSKARAZ HITZ EGIN

Barrundiako udalerrian euskararen erabilera sustatzeko kanpaina.

Populazio sakabanatua eta euskaldun kopuru txikia (ezagutza geroz eta handiagoa den bitartean praktikak ez du aurrera egiten) duen ingurune errural honetan, lehenengo hitza gazteleraz izaten da harreman berrietan, eta oso zaila da gero ohiturak aldatzea.

Badirudi ikastetxe eta euskaltegietan euskara espazioa irabazten ari den bitartean, kalean ez dela horrenbeste nabari. Horregatik azken batean, kaleko zein ezagutza eta praktikaren arteko espazio hori irabazten joatea izan da gure helburu nagusia.

Egitasmo honen bidez harreman sareak euskalduntzeko urrats txiki bat eman eta euskaldunen sarea egituratzen hasteko ahalegina egin nahi izan dugu , era berean herrietako bizitza euskaldun bihurtzen joan dadin Zenbait herrietako zentro soziokulturalak gune erreferentzialtzat hartuz.

Hori dela eta, gure udalerrian euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin 2012an irudi eta lelo lehiaketa bat antolatu genuen Barrundiako edozein herritarrek parte har zezan. Lehiaketan 6 lan aurkeztu ziren (3 mutil eta hiru neska) eta oso irudi eta lelo politak aurkeztu zituzten. Hauetako bat, irabazlea hain zuzen ere, euskararen asteko lelo eta irudi moduan erabili genuen.

Udalerriko euskararen erabileran beste urrats bat eman nahian, iazko irudi eta lelo irabazlea 2013an burutu dugun kanpainaren irudia izan da. Irabazlearen lanarekin eskaiolazko irudiak egin ditugu eta udalerriko herri guztietako udaletxe, gizarte etxe zein kontzejuetan bana utzi dugu herritarrei euskararen erabilerak duen garrantziz uneoro gogorarazteko.

Irudiak banatzearekin batera kanpainean zehar udalerriko herri gehienetan jarduera ugari antolatu ditugu kanpainaren asmoak zabaltzeko. Oso egitasmo partehartzailea izan da eta jarduera guztien antolaketa lanak bertako herritarrek egin dituzte, euskararekiko inplikazio handia erakutziz. Mota guztietako jarduerak burutu dira eta guztietan parte hartzea oso handia izan da, besteak beste; ume zein helduontzako mota guztietako tailerrak (txalaparta, xaboiak, sukaldaritza, kamisetak margotu), ginkana jolasak , ipuinak, mural margoketak, bertsoak, dantza-plazan...

Zorionak kanpaina hau aurrera ateratzen lagundu zein kanpina honetan modu batean edo bestean parte hartu duten barrundiar guztiei, datorren urtean berriz ere elkarrekin arituko garelakoan, besarkada handi bat.

MARGO TAILERRA ETXEBARRI URTUPIÑAN

TXALAPARTA TAILERRA HEREDIAN

BERTSO POTEO LARREA

ALTXORRAREN BILA MATURANAN

GABONETAKO TAILERRAK

Urtero bezala, abendua ekintzaz beteta heldu da. Abenduaren 20an gabonetako Barrundiako liburutegian ipuin kontalaria izan genuen. Umeak pozik hurbildu ziren bertara eta kontakizuna arretaz entzun eta disfrutatu zuten.....

Abenduaren 27an kiroldegia ume eta gaztetxoen topa leku bihurtu zen. Bertan puzgarriaz gozatu, baita herri kirolak praktikatzeko ere aukera izan zuten: serrarekin ibili, boloetan jolastu, igel jokua, harriak jaso, txingak,.... Tailerrak ere egin zituzten: giltzekoak, hostoekin egindako bitxiak eta arrakasta itzela izan zuena: postre goxo-goxoak egin eta dastatu. Jardueraz betetako goiza izan zen.

Aurten, kirol ekintzen artean, gazteentzako spinning eskaini da, eta batzuk animatu egin dira. Kirol jarduera hau, osasuntsua izateaz gain gure hizkuntzari bultzadatxo bat emango dio, euskaraz egin baita. Aurrera pedaleei eragiten!

El 20 de diciembre se dió comienzo a los talleres de Navidad con un interesante cuento en la biblioteca. El día 27 el polideportivo de Ozaeta se convirtió en punto de encuentro de los más jóvenes del municipio. Este año además tambíen se ha ofrecido spinning entre las actividades deportivas.

RECOGIDA DE ALIMENTOS

Durante el mes de Diciembre (del 6 al 21) se ha organizado una recogida de alimentos para ayudar a los más desfavorecidos. Los alimentos recogidos se han entregado en las Casas de Acogida de Puente Alto (Asociación Bultzain) y del Barrankal, se ha valorado especialmente el conocer el destino de los alimentos entregados.

La respuesta de Barrundia ha sido muy buena, gran parte de las aportaciones han sido productos de la huerta. Estas han sido las cantidades recogidas:

- VERDURAS, HORTALIZAS Y FRUTAS: **267,50 Kg**
- LEGUMBRES: **156,50Kg**
- AZUCAR, PASTA, ACEITE Y OTROS: **219,28kg**
- CONSERVAS: **70,29kg**
- LÁCTEOS Y NIÑOS: **103,38kg**
- CAFÉS, GALLETAS Y DULCES: **62,70kg**
- FRUTOS SECOS: **63,75kg**
- OTROS: **5,64kg**
- LIMPIEZA, HIGIENE Y OTROS: 73 unidades
- DINERO 10 €

TOTAL KG ALIMENTOS :949,04kg

¡MUCHAS GRACIAS A TODOS POR VUESTRA SOLIDARIDAD!

2013 LABURREAN - 2013 EN BREVE

ENCUENTRO DE MUJERES: Un grupo de mujeres acudió a Tolosa con el fin de intercambiar experiencias.

NIEVE EN BARRUNDIA: Hemos tenido grandes nevadas en los primeros meses del año.

KORRIKA BARRUNDIAN ZEHAR: Korrikaren 18. edizioak zeharkatu zituen barrundiako herriak.

EH TXO! JAUZI EGIN ETA EUSKARAZ HITZ EGIN!: Igela izan zen euskararen irudi gisa lehiaketan aukeratutakoa.

POLÍTICA VIVIENDA: Se han realizado tres talleres para definir la política vivienda.

ALBOKA EGUNA 2013 Ozaetan eta Otazan ospatu zen giro paregabean.

2013 LABURREAN - 2013 EN BREVE

NORMA FORAL contra las competencias de los concejos.

Igor Uriarte barrundiarraren atxiloketa Frantziar Estatuan.

"NORDIC WALKING" gunearen inaugurazioa.

IDUIA ATE IREKIAK. Puertas abiertas para dar oficialidad a la nueva Casa Consistorial.

MARCHAS A ESTIBALIZ Y ARÁNZAZU: Un año más los y las barrundiarras hemos seguido con la tradición de estas dos marchas.

SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE.

REAPERTURA EKONOMATO DE BARRUNDIA. Inauguración del nuevo local del ekonomato.

MUSIKA KLASIKOA. "Lautada Musiketan, Asparrena eta Barrundia".

ELECCIONES DE JUNTAS ADMINISTRATIVAS. El 1 de diciembre se celebraron las elecciones a los concejos.

PIEDRAS DE JUDIOS
O DE CUANDO BARRUNDIA ESTABA BAJO EL MAR

Cuando caminamos desde Etura en dirección a Heredia es relativamente fácil observar en las laderas de los caminos múltiples piedras de aspecto acorazonado con una especie de cruz incrustada. Si indagamos en sus orígenes veremos que esta descripción corresponde a un fósil equinido.

Intentaremos hacer dos aproximaciones, una desde la paleontología clásica y una segunda desde el "folclore paleontológico", es decir, desde las creencias, usos y leyendas populares que el registro fósil local ha generado y que forman parte de la cultura popular.

FOLCLORE POPULAR

Los fósiles del genero Micraster, especialmente los de la especie M. Coranginum, hasta mediados del siglo XX, han sido los fósiles más vinculados a mitos y leyendas sagradas, debida a la marca cruciforme, percibida por la imaginación popular en cuatro de sus cinco surcos ambulacrales. A continuación describiremos algunas de ellas, agrupándolas por territorios.

ALAVA: Arañas y erizos, en Lagran por la semejanza en la distribución de los surcos ambulacrales con una araña extendida sobre su tela o con un erizo.

En diversas zonas de Álava, hasta mediados del siglo XX se les daba el nombre popular de "matacristos", "piedra matacristos" o "piedra de judios" , pues creían habían sido utilizadas por los judíos para lapidar a Jesucristo, posible origen del pseudogentilicio "judíos" de los habitantes de Heredia y otros pueblos alaveses con abundancia de fósiles Micraster en sus proximidades.

En Uzkiano eran denominadas piedras rayo y en Contrasta rayos, por la creencia de que eran piedras que acompañaban al rayo en su caída.

Piedras de Santa Catalina en Trespuentes y piedras de San Esteban en otras zonas sin determinar.

GIPUZKOA: En Andoain se les relacionaba con el Apostol Santiago recibiendo los nombres de piedras de Santiago , con diferentes variaciones: Santiagoren arriak, Santiago Matamorosen arriak, utilizándose como amuletos protectores contra el rayo.

En Oñati reciben los nombres de Sandailliren arriak o Sandailiren arriak, santikuarri, dice la leyenda, que Sandailli era natural de Narbaja y que sus vecinos, lo expulsaron del pueblo a

Eturatik Herediara oinez baldin bagoaz errez aurkitu ahal izango ditugu bideetako ezpondetan halako harri bereziak, bihotzaren itxurakoak eta erdian gurutze moduko bat zizelkatuta daukatenak. Horien jatorrian apur bat arakatuz gero jakingo dugu ezaugarri horiek fosil ekinido deritzonari dagozkiola.

Saiatuko gara horien gaineko informazio gehiago eskaintzen bi bide erabilita, alde batetik paleontologia klasikoa, eta bestetik "folklore paleontologikoa" delakoa, hau da, fosil horrek bertako kulturan utzi duen arrastoa; sinismenetan, ohituretan nahiz kondairetan.

HURBILPENA PALEONTOLOGIAREN BIDETIK

Sarrera: Euskal Herriko historia geologikoaren zatirik handiena, 600 milioi urte baino gehiago, itsasoko uren azpian gertatu zen.

Goi Kretazeoan (duela 90 milioi urte) buztinen eta tuparrien sedimentazio trinko bat hasi zen eta, ondorioz, itsas hondoak organismo iragazleekin kolonizatu ziren, gehien bat belakiak, amoniteak eta molusku ezberdinak ziren eta azken horien artean, besteak beste, Inaceramusak eta itsas triku hondeatzaileen mota desberdinak zeuden; Agurain inguruan, Arabak eta Nafarroak bat egiten duten partean Micrasterrak eta Echinocorysak oso ugariak ziren.

Taxonomia (sailkapena): Domeinua: Eukarya; Erreinua: Animalia; Taldea: Metazoo; Azpitaldea: Deusterutomia; Dibisio edo phylum-a: Echinodermata; Azpidibisio edo azpiphylum-a: Echinozoa; Mota: Echinoidea; Azpimota: Euechioidea; Ordena: Spatangoida; Goi-familia: Micrasterina; Familia:

pedradas, y que a consecuencia de ello se retiró a la cueva de Sandaili en Araotz donde hizo vida eremítica, y donde nos dejó una pequeña ermita, la cueva también ha sido objeto de peregrinación por parte de las mujeres que deseaban la maternidad y por los habitantes de Larrea y Narvaja para pedir la lluvia en epoca de sequía.

NAFARROA: En el Valle de Ameskoa son denominadas Calbarros, galbarros, calvarris y calvorros, probablemente nombres relacionados con su forma similar a un cráneo humano ¿piedra calva?

En Urdiain, eran conocidas como Jainkoaren arriya, Jangoikoen arriya, piedras de Dios o del Dios del cielo, atribuyéndoles las propiedades de caer del cielo durante las tormentas para castigar a los impíos, sin embargo en otras zonas eran utilizadas como amuletos para protegerse de las tormentas.

En el valle de Allin son denominadas Piedras de Santa Lucia o Santa Lutziarenarriak .

En el valle de Arakil eran denominados cantellas, centellas y ramaskilluak, siendo utilizados como amuletos protectores contra la caída del rayo.

En los valles de Deierri y Allin son denominadas "piedras que los cristianos utilizaban contra los moros" por su posible uso real o imaginario como arma ofensiva arrojadiza utilizada durante las invasiones musulmanas.

En la comarca de Sakana eran denominadas Santikuarri, posiblemente por su cruz incrustada ¿piedras de la Santa Cruz?.

En la misma comarca (valle de Arakil y de La Burunda) se les relacionaba con el Apóstol Santiago recibiendo los nombres de piedras de Santiago, con diferentes variaciones: Santiago arriak, Santiyo arriak, Santiyo arri, Santillo arriya, usándose como amuletos protectores contra el rayo.

En el Valle de Ergoiena (Sakana) son denominadas Sorgin arri, sorgin arria y sorrin arria en posible relación a su uso amuletico para conjurar tormenta.

Los nombres vulgares de los fósiles se han ido perdiendo a partir de 1960 por los procesos de migración del campo a las ciudades y/o a los efectos del "progreso cultural" que hace se menosprecie el léxico popular.

Micrasteridae; Generoa: Micraster; Espeziea: Micraster coraginum (Leske, 1778)

Bizitokia: Itsasoko animalia haiek hondo ozeoaniko edo bentonikoetan, lohi bigunen barrenean bizi ziren eta elikagaia lohia iragaziz bereganatzen zuten.

Noiz eta non bizi ziren: Koniaziense-Santoniense garaikoak dira (Goi Kretazeoa): duela 66-100 milioi urtekoak, beraz.

Goi Kretazeoan oso ugariak ziren Iberiar Penintsulako iparraldean, bereziki Nafarroa, Araba eta Gipuzkoaren arteko mugaren inguruetan.

Deskripzioa: Micrasterra (izena alde batetik grekeratik dator, "micros"= txikia, eta bestetik latinetik "aster"= izarra) oso genero ezaguna da, ikerketa asko egin baitira bere bilakaera, taxonomia eta morfologiaren inguruan.

Triku irregular edo exoziklikoa da, 6,5 zentimetrokoa eta bihotz forma du; bere anbulakroakl estuak dira eta ez oso luzeak, hala ere, anbulakro bikoitiak besteak baino

zabalxeagoak dira. Poroak zehar-ildo batez elkartuta daude. Punta-sistema erdian dago eta 4 gonoporok osatzen dute; bertatik eta aurrekaldeko anbulakroaren paretik sakonera gutxiko ildo bat sortzen da ahoren aldera doana, ildo horrek elikadura-hodiaren funtzioa egiten du. Ahoa, edo peristoma, obal formakoa, aurrealdeko ertzeruntz lerrokatuta dago eta ez du murtxikatzeko aparatorik. Periproktoa edo uzkia, ertzetik apur bat gorago dago eta uzkiazpiko fasziola bat du.

GORKA KNÖRR ETA GEBARA

En 1976 un joven Gorka Knörr, cantautor vasco, aunque nacido en Catalunya (Tarragona, 1950) y que fue considerado el representante de Araba entre los cantantes de su generación, publica su tercer disco de larga duración (LP) "Txalaparta" (Movieplay/Kardantza, 1976) y de él un año después (1977) se extrae el sencillo (single) que contiene en su cara A la canción "gu gara" y en su cara B "Gebara" canción dedicada a las ruinas del Castillo de Gebara.

GEBARA

Larrintzarreko zelaietan
eperrak dira kantatzen
pake-irudi eder hortan
betiko egon nahi nuke.
Gebarako gaztelua
hari lurrera amilduak
oraindik tente dagoen dorrea
gure arimaren puxka
jeikiko ote zara
Gebara
jeikiko ote zara
Gebara?

Non ote beste puxka
falta dugun puxka
ur-bildegiaren hondoan
ito ote?
jeikiko ote zara
etsaiari buru emateko,
burruka luze hontan
irabazteko?
Larrintzarreko zelaietan
eperrak dira kantatzen
pake-irudi eder hortan
betiko egon nahi nuke.

MAQUETA DE LA IGLESIA DE MARIETA
MARIETAKO ELIZAREN MAKETA

Horas y horas de trabajo y muchísima paciencia se han debido de dedicar para realizar esta réplica de la iglesia de Marieta. Realmente merece la pena acercarse y observar cada detalle, las columnas, el tejado, el campanario...

¡Muchas gracias Koldo!

"Pazientzia da gure zientzia" diote batenbatzuk, baina kasu honetan artea ere badela esan genezake.

Marietako elizaren maketa dugu elizan ikusgai eta baita ikusgarri ere Koldo-ren lanari esker.

Eskerrikasko!

LARREATIK GALARRETARA GR-25 BIRA ERABILIZ

Zortzigarren ibilbide honetan, gure proposamenak jarraipena emango dio aurrekoari, Elgeatik Larrearaino iristen bazen aurrekoa, oraingo honek Larreatik Galarretara eramango gaitu, Barrundiatik kanpo, betiere GR-25 zidorra (Arabako Lautadaren bira) jarraituz.

Larreatik iparraldera doan ibilbidea hartuta, kilometro batera eskumarantz abiatzen den bide bat hartu behar da, GR-25 ibilbidearen seinalea dago, Barriara 3,8 kilometro daudela markatzen duena. Hasieran ez da bide nabarmena, ezta oso zabala ere, baina berehala pista arrunt batera ailegatuko gara eta hau jarraituz ezkerrerantz beste pista batekin egingo dugu topo, hegoaldetik datorrena; guk iparraldera joko dugu. 400 m inguru egin ondoren, eskumara joango gara, lehenik pinudi bat zeharkatzeko, eta ondoren ameztian sartzeko, betiere Axpuru herria hegoaldean dugula. Berehala iritsiko gara Barriara; nahiz eta GR-25 ez den Barriatik bertatik pasatzen, merezi du eliza bisitatzera hurbiltzea, batez ere barruan duen klaustroa ikusteko. Monastegia XII. mendekoa da baina mantendu diren aztarna zaharrenak XV.ekoak dira. Beriki, 1984. urtean berreskuratu zen eta aterpe bihurtu.

Barria atzean utzita, iparraldera joko dugu berriz, Baltia izeneko baserriak topatu arte, zein ameztiez inguratuta dauden. Laster Sorogaina izeneko parajera iritsiko gara, hor bidegurutze bat topatuko dugu eta berehala eskumarantz jo beharko dugu; une horretan pista landaz inguratuta dago, ametzak atzean gelditu dira. Eskorta erreka zeharkatu ondoren, eta pista aldapan gora jarraituz gero, Narbaiza eramaten duen bidea topatuko dugu. Metro gutxi batzuk lehenago, eskumara berreskuratutako zabortegi bat ikus daiteke, gaur egun landaretzaz estalia.

Bidea jarraituz, ur-andela bat aurkituko dugu gure eskuman. Daramagun pistak amezti gazte bat zeharkatzen du, laster seinale bat ikusiko dugu ezkerrerantz; kontuz hemen, bide estuena hartu behar da eta. Gure ezkerrean tontor txiki bat ageri zaigu, egurrezko seinale batean Bokario izenez markatua dagoena; bertatiik bistak politak dira, inguruko herriak ez ezik (Arriola, Gordoa, Galarreta...) mendi ezagunenak ere ikusten baitira (Elgea, Malkorra, Pil-pil, Aratz, Umandi, mendebaldetik ekialdera). Bideak hesi baten aldemenetik jarraitzen du; une jakin batean zeharkatu egin behar da (GR-25 ibilbidearen ikur gorri eta zuriz markatua), hemendik aurrera ibilbidea ez da oso nabarmena, beraz, adi egon landa zabal bat gurutzatzerakoan, seinalerik ez baitago. Landaren beste ertzean hesiaren gainetik salto egin behar da, bertan baitaukagu GR-25aren seinalea, aurrerago bi hesien artean jarraitu behar dugu aldapan gora, Narbaxa mendikatea zeharkatzeko ekialderantz.

Hemendik, Malkorraren hegoaldera karkaba batzuk ikusten dira, batetik ura dariola, Urkate edo Urkatu izenaz ezagunak. Eurite dezenteen ondoren bisitak merezi dute, gainera bertara ailegatzeko bidea gertu pasatzen da.

Zonalde honetan ehiza industriala egiten da urte guztian, hau da, ehiza-barrutia da, baina bertako ustiapen-mota abeletxeetan hazitako animaliak askatzean oinarritzen da; Foru Aldundiak baimena eman behar du nahitaez.

Mendi-lepo batera iritzsko gara non hainbat seinale dauden, beherako bidea hartuta Arriolara jaitsiko gara, handik igotzen den pista hartuta, iparralderantz jota, pista berbera jarraituz, Aitzgorri-Aratz parke naturalean sartuko gara eta Urbiako landetara iritsi gaitezke. Guk zuzen hartu behar dugu, mendian gora, beti ekialderantz.

Beste bidegurutze batera iristean, beherantz doan bide zabala hartuko dugu, beste mendi-lepo batera eramango gaituena. Bertan GR-25 ibilbidearen seinaleak ikusiko ditugu, Galarretara 3,3 km. markatzen duenari jarraituko diogu. Berehala pinudi eta ameztiaren artean irekitzen den bide ospel bat hartuko dugu, beste pista zabalago batera iritsi arte, basoa atzean utzita eskumara joko dugu, aldapan gora ur-andela txiki batera iritsi arte. Hor, Galarretatik jada oso gertu egongo gara, 15 minutuan herrian sartzeko moduan, hori bai, GR-25 ibilbidea ezkerrean utzita, hartu gabe; Korrosparri parajean gaude, bertan proiektatuta dagoen urtegi polemikoari izena ematen diona. Baina hori beste kontu bat da.

LARREATIK GALARRETARA GR-25 BIRA ERABILIZ



Distantzia: 14 Km

Denbora bizikletaz : Lau ordu / eta lau ordu eta erdi inguru

Zailtasuna: Ertaina

BARRUNDIA UDAL LIBURUTEGIKO AURTEN EROSITAKO LIBURU BERRIAK
NOVEDADES ADQUIRIDAS EN LA BIBLIOTECA MUNICIPAL DE BARRUNDIA

HELDUENTZAKO/ADULTOS
La vida de los objetos (Moorem Susanna)
Pendrive (Mardaras, Arrate)
Itahisa (Mtnez. De Lezea, Toti)
Legado en los huesos (Redondo, Dolores)
19 kamera (Arretxe, Jon)
Todo es rojo (Ugarte, Yurre)
Ezer ez (Teller, Janne)
Odolaren sua (Némirovsky, Irène)
Ileak uretan (Penades, Josu)

HELDUENTZAKO/ADULTOS
Annabel (Winter, Kathleen)

HAURRENTZAKO / INFANTIL
Aldontza hontza eta bere adiskideak (Salembier, Philippe)
BatPat itzulera jurasikora (Pavanello, Roberto)
Herensugearen kodea Stilton, Tea
Egizu lo : lotarako ipuinak (Igerabide, Juan Kruz)
Arratia inguruko ipuinak (Larrea Beobide, Angel)

IRAKURLEEN TXOKOA

"La isla de las mariposas" de Corina Bomann

El mismo día en que descubre que su marido le es infiel, la joven abogada Diana recibe la noticia de que su adorada tía abuela Emmely está muy enferma. Sin pensárselo dos veces, Diana toma el primer vuelo a Inglaterra para despedirse de ella. Emmely tiene una última voluntad: Diana debe esclarecer un antiguo secreto familiar. Para ello, la anciana ha dejado pistas por toda su casa, la imponente mansión Tremayne House, que su sobrina deberá encontrar e interpretar, con la ayuda del leal mayordomo, el señor Green. Poco a poco, Diana desenmaraña una compleja historia familiar que se remonta al siglo XIX y la conduce hasta las hermanas Grace y Victoria Tremayne, propietarias de una plantación de té en Ceilán. La joven abogada se verá obligada a dar los pasos de sus ancestros y viajar a la hermosa y exótica isla de Sri Lanka para desvelar el misterio. Novela entretenida y amena para las tardes de otoño.

"La isla de Bowen". César Mallorquí.

1920. Todo comenzó con el misterioso paquete que, antes de morir, Jeremiah Perkins envió a Lady Elisabeth Faraday. O quizá la historia empezara antes, cuando se descubrieron unas extrañas reliquias en el interior de una viejísima cripta medieval, pues fue precisamente una de esas reliquias imposibles la causa de que el malhumorado profesor Ulises Zarco, director de la sociedad geográfi ca SIGMA, se embarcara en una aventura inimaginable a bordo del Saint Michel. Tanto Zarco como su ayudante, Adrián Cairo, han recorrido el mundo enfrentándose a toda clase de peligros, igual que el capitán Verne y su tripulación, o el joven fotógrafo Samuel Durango, e incluso las dos damas inglesas que les han solicitado ayuda; pero ninguno de ellos estaba preparado para afrontar el temible misterio que envuelve a la isla de Bowen, más allá del Círculo Polar Ártico.

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN GUTUNA

Barrundiar maitagarriak:

Mari Domingi nauzue eta Barrundiako umeek Olentzerori idatzi dizkiozuen eskutitzen erantzuna emateko idazten dizuet.

Urtero bezela, jaiak zuekin hastera eta agurtzera hurbildu ginen Olentzero eta biok Barrundiara, aipagarria da guretzat Gebarak bere indar guztiak jarriz harrera ezin hobea egin zigula, herria eta herritarrak behar bezala apainduta, inguruikaragarrian azaldu ginen umeen artean. Euriak eta haizeak geldiarazi nahi izan gintuzten baina zuen guztion indarraren aurka ezin izan zuten lortu, hor egon zineten guri ongietorria eskaintzeko. Gebarako gazteluko bidetik agertu ginenean zuen ilusio eta harridura aurpegiek indarra eman ziguten guri ere eguraldi txarrari aurre egin eta elkarrekin elkarterainoko bidea osatu genuen trikitilarien eta Pascuali traktorearen laguntzarekin. Elkartera iritsi eta "Agurra" eskaini ziguten bertokoek, oraindik ere piztuta irauten zuten azken lastargiak euripean itzaltzen ziren bitartean. Benetan une hunkigarria izan zen!

Zuen ilusioak bizirik irauten duen neurrian guk bizirik jarraituko dugu, beraz zuen ilusioa elikatzen jarraitzeko eskatu nahiko genizueke, gure aldetik zuen desirak betetzen saiatzen jarrituko dugularik.

Datorren urterarte agurtu aurretik, gogorarazi nahiko genizueke maitatu eta errespetatu behar dituzuela aldamenean dituzuen pertsonak, hori baita bizitzak duen altxorrik handiena eta.

Eskerrikasko Gebara!

Mari Domingi eta Olentzero